

## Komikia landuko dute Irunen datozen egunotan

Komikiaren asteak izango dira datozen biak Irunen. Gazteria Sailaren Gaztearte programaren barruan Komikiaren Hamabostaldia egingo baitute, astelehenean hasi eta hilaren 30era bitartean.

Egun horietan ez du komikiak bakarrik tokia izango, komikiaren hizkuntzaz gain, rol eta estrategia jokoak eta bideojokoak ere landuko dituztelako.

Fernando San Martin Hezkuntza eta Gazteria zinegotziaren arabera, aurten Gaztearteren proposamena zabaldu egin dute: "Hiriko komikizale eta komikizale ez direnei eta baita beste diziplina batzuetakoei ere, adibidez, manga, bideojokoak...".

Horrez gain, komikiarekin lotuta, asteburu honetan bukatuko da Cómic, manga y compañía: la nueva cultura alemana del cómic erakusketa, Ikust Alaia liburutegian.

### Izen emateko epea, irekita

Aurretik izena eman beharko da hainbat tailerretan, eta horretarako, [www.irun.org](http://www.irun.org) webgunera jo beharko da. Honakoak dira izena eman beharko diren tailerra: Hama tailerra (hilaren 23an), papercraft (hilaren 30an), modelatu tailerra: rol jokoetarako eszenografiak sortzea (hilaren 23 eta 30an), komiki tailerra (hilaren 28an) eta manga tailerra (hilaren 21an). Tailerrak 13 urtetik gorako gazteei zuzenduta daude.

### EGITARAUA

**Astelehena:** 17:00-20:00: Magic, hastapen partida, Tinta Comicsekin.

**Astearte:** 17:30-18:30: Bideojokoen lehiaketa: Mario Bross, Gaztelekun. 17:00-20:00: Jokoak probatzeko arratsaldea, Tinta Comics-en.

**Asteazkena:** 18:00-19:00: Animaziozko proiektzioa, Gaztelekun.

**Osteguna:** 17:00-20:00: Joko proba Tempus elkartearekin, Tinta Comics-en  
18:30-20:00: Komiki tailerra, Lapitzeko udal ludotekan. 19:00-20:30: Manga marrazki tailerra, Kabigorrin.

**Ostirala:** 18:30-20:00: Komiki tailerra, Kateako udal ludotekan.

**Larunbata:** 16:30-19:30: Modelatu tailerra: rol jokoetarako eszenografiak sortzea, Eskukan. 17:30-18:30: Hama tailerra, figurak sortzeko teknika japoniarra. 18:30-19:30: Japoniako joko tradizionalak: Mikado eta Jenga erraldoiak, Gaztelekun.

**Igandea:** 17:00: Ate irekiko jardunaldia, Tempus elkartean.

**Astelehena, 25:** 17:00-20:00: Magic, hastapen partida, Tinta Comics-en.

**Astearte, 26:** 17:30-18:30: Bideojokoen lehiaketa: FIFA 14, Gaztelekun.

**Asteazkena, 27:** 18:00-19:00: Animaziozko proiektzioa, Gaztelekun.

**Osteguna, 28:** 17:00-20:00: Jokoak probatzea Tempus elkartearkin, Tinta Comics-en.

**Ostirala, 29:** Bisitaldi gidatua BD Numeriqueren L'Atelier erakusketara, Marko Armspachekin, Angelun, eta tailerreko parte hartzaileekin topaketa.

**Larunbata, 30:** 16:30-19:30: Modelatu tailerra, rol jokoetarako eszenografiak sortzea, Eskukan. 17:30-18:30: Papercraft tailerra, komiki pertsonaiak 3D paperarekin, Gaztelekun. 18:30-19:30: Jolas japoniar tradizionalak: Mikado eta Jenga erraldoia, Gaztelekun.